2. mailako *Hirigintza I: inguru fisikoa* irakasgaia. 2012-2013 ikasturtea

2. ariketaren 1. zatia (hiriaren eskala)

Hiri-ibilbideen azterketa (I)

Aurtengo tailer bateratuko praktika Gasteizen denez, *Hirigintza I: inguru fisikoa* irakasgaiko ikasleek, taldeka, Gasteizko hiri-ibilbide nagusien azterketa egin beharko dute. Oinez ibiltzerakoan eramaten den abiaduraren arabera hiru ibilbide sailkatuko dira: kultura-ibilbidea, kirol-ibilbidea eta ibilbide geldoa.

1. **Kultura-ibilbidea**: kulturarekin erlazioa duten ekipamendu eta espazio libreak lotzen dituen hiri-segida. Erlazio hori funtzioagatik zein arkitektura-balioagatik aintzat hartu daiteke. [erabiliko diren koloreak: eraikinak, morez; espazio eraikigabeak, larrosaz]
2. **Kirol-ibilbidea**: kirol-dotazioak (polikiroldegiak, igerilekuak…) eta kirolean aritzeko espazio libreak biltzen dituen hiri-segida. [erabiliko diren koloreak: eraikinak, urdin ilunez; espazio eraikigabeak, urdin argiz]
3. **Ibilbide geldoa**: hirian zehar astiro ibiltzen diren herritarrek erabiltzen dituzten ekipamendu eta espazio libreen hiri-segida (gizarte-zerbitzuko ekipamenduak, eskolak, osasun-zentroak…). [erabiliko diren koloreak: eraikinak, laranjaz; espazio eraikigabeak, horiz]

Ibilbideak itxiak (zirkularrak) zein irekiak (adardunak) izan daitezke, baita bien arteko nahasketa ere. Eraikin eta espazio libre nagusien izenak adieraziko dira. Areago, ibilbide bakoitzeko sekzio esanguratsuena egingo da (nondik egin den adieraziz), eta eraikin nagusien marrazkiak gehituko dira (bakoitzean 3 gutxienez, eta 5 gehienez), gehi Arte Ederretako museoaren marrazkia(k). Arreta berezia jarriko zaio hiru hiri-segiden eta Arabako Arte Ederretako museoaren partzelaren arteko erlazioari. Ez ahaztu plano bakoitzaren izenburua, eskala eta legenda adierazten. Ariketa din A-1 tamainako 3 planotan emango da:

- CDan (PDF edo irudi-formatoan): urriaren 24ko (asteazkena) tailer bateratuaren hasieran (15:00an).
- Paperean, urriaren 31ko (asteazkena) eskola teorikoaren hasieran (18:30an), 1. ariketarekin batera.

Oharra: eskatzen den lanaren adibide bat 2006ko "Hiru hiri-segida Madrilen" ideia-lehiaketaren oinarrietan dago: http://ttiki.com/40800 (kontsultatu, bereziki, "*2. Bases y documentos*" atalaren barneko "*2. Planos de los itinerarios*" zatiko planoak). Gasteizko kartografia bektoriala (xehea, 1/500 eskala arte, baina ez eguneratua) Arabako Aldundiaren webgunean dago: http://ttiki.com/43259; Gasteizko plano eskematiko eguneratuago bat http://ttiki.com/43258 helbidean duzue (Arabako Aldundiaren planoekin osatu beharko litzateke).

Donostian, 2012ko urriaren 11n

Irakasleak: Josemari Alkorta eta Unai Fdz. de Betoño